



1. Sarrera	2
-------------------	---

2. Zergatik izan nahi duzu boluntario? Egizu gogoeta arrazoen gainean	4
--	---

3. Zer premia, arazo edo bidegabekeria daude? Jakizu zer-nolako premiak dauden zure ingurunean	5
---	---

4. Zer egin dezakezu? Aztertu zure gaitasunak, zure interesak, zenbat denbora duzun.	8
---	---

5. Nola, non, noiz? Jaso informazioa eta prestakuntza	10
--	----

6. HAR EZAZU PARTE ekintza boluntarioko proiektuan eta erakundean.	14
---	----

7. Bestelako informazio interesgarriak	15
---	----



1. Sarrera

"Boluntariotza parte-hartze sozialerako modu bat da; hau da, jendeak bere denbora, esperientzia, ezagutza, gaitasunak eta lana eskaintzen ditu elkartasunezko zeregin bat egiteko, diru ordainik jaso gabe. Pertsona bakoitzaren hautua da, bere borondatez egina, eskuzabala, irabazi-asmorik ez duen gizarte-erakunde batekin lankidetzan aritzeko."

Boluntariotzak garapen sozialeko maila garrantzitsua dakar berarekin, eta horrekin bat:

- Herritarren parte-hartzea ahalbidetzen du.
- Gizartearen bizi-kalitatea hobetzen laguntzen du.
- Gizarte egoera ahulean dauden pertsonen eta taldeen interesak defenditzen ditu.
- Gizarte-ehuna sustatzen laguntzen du.
- Funtsezko balioak bultzatzen ditu (justizia, errespetua, lanerako gogoia, lankidetzaren), eta bizitzari buruzko beste ikuspegi bat dakar.

Gainera, boluntariotzaren bidez, gauzak beste ikusmolde batetik ikusiko dituzu, eta bestelako gauzak hartuko dituzu aintzat; beharbada, lehenago, lehentasunezkoztat jotzen ez zenituenak. Nolanahi ere, boluntariotzan aritzen bazara, honatx zer balio sartuko zaizkizun barru-barruraino: **elkartasuna, parte-hartzea, altruismoa, eta osotasun baten parte izatearen sentimendua.**

Boluntariora parte-hartze sozialerako modu bat da, eta **ezaugarri** hauek ditu:

- Librea izan behar du, parte-hartzaile bakoitzaren ekimenetik sortutakoa, eta jakinean eta borondatez egina.
- Autonomia izan behar du, botere publikoetatik nahiz interes ekonomikoetatik independentea.
- Bidezkoa izan behar du, giza eskubideak errespetatuz egina.
- Beste pertsona batzuekin batera antolatu eta garatu beharra dago, irabazi-asmorik gabeko erakunde egituratu batean, lan planifikatua eta taldean egiteko.
- Elkartasunezkoa izan behar du, pertsonaren aldekoa eta asmo eraldatzailez egina.
- Eskuzabala izan behar du, helburu partikularrik gabea, eta interes orokorra, xede.
- Doakoa izan behar du, ordainsaririk gabea, lan eta merkataritza harremanik gabea, eta ez du izan behar betebeharrak pertsonalen eta juridikoen ondorio.
- Osagarria izan behar du; ez du zerbitzu profesional ordaindurik ordeztuko, ezta erakunde publikoen ekintza ere.



2. Zergatik izan nahi duzu boluntario? Egizu gogoeta arrazoien gainean

Arrazoi askok eraginda izan zaitezke boluntario.

Zein izan daitezke arrazoiak?

2 arrazoi mota dira, nagusiki:

- Arrazoi ideologikoak, etikoak edo moralak, edo erlijio tankerakoak. Horrelako arrazoiek eraginda, pertsonak bere egin ditzake besteen arazoak eta premiak, edo zerbait egin nahi izango du gizartea hobetzeko, gauzak aldatzeko edota mundua eraldatzeko.
- Arrazoi pertsonalak direla medio, hau da, gizartearen aldeko lanean bere bizitza onuragarria dela sentitzeko beharrak eraginda, esperientzia berriak ezagutu eta bizi nahiak eraginda, edo pertsona gisa hezi eta garatu nahiak eraginda, besteekin harremanetan sartzeko eta lan egiteko nahiak eraginda...

Borondatezko ekintzak **EMAN** (denbora, baliabideak, lana, etab.) esan nahi du, eta, era berean, **JASO** (poza, ikaskuntzak, esperientzia, giza harremanak, etab.)

→ *Garrantzitsua da jakitea ez direla egin behar langile profesionali dagozkien lanak, horrek aitortu gabeko lan-egoerak ezkutatu litzakeelako edo lanesku "merkea" eragin lezakeelako.*



3. Zer premia, arazo edo bidegabekeria daude? Jakizu zer-nolako premiak dauden zure ingurunean

Zuregandik oso hurbil, zure komunitatean, zure auzoan, zure hirian, badira **zure laguntza behar duten premiak eta arazoak**. Nahikoa da pixka bat ikertzea, eta berehala ikusiko duzu erakunde eta talde batzuk dagoeneko ari direla gogoz lanean egoera horiek hobetzeko.

Pentsatu zure iritziz zer gai, zer premia, zer arazo diren garrantzitsuenak; zer kontuk “ukitzen” zaituzten zu eta beste pertsonak gehien; zer kontu dauden zuregandik hurbilen.

→ *Web, baliabide eta prentsan jasoko duzu informazioa. Adibidez: zure hirian: elkarteak.info, EAEn: begirada.org, eta Estatuan: hacesfalta.org*

Zer ekintza-arlotan parte hartzen dute boluntarioek?

Ekintza boluntarioa ia gai arlo guztietan garatzen da, jarduketa arlo guztietan, adibidez:

Boluntariotza Komunitarioa

Herritar mugimenduak eta taldeak sustatu eta haietan parte hartzea, hainbat xederekin: aisia, hazkuntza pertsonaleko elementu gisa; denbora librea sormenez erabiltzea; herritarrek hezkuntzan parte hartzea, edo kultur identitateen zabalkundea, berreskurapena eta kontserbazioa; auzo mugimenduak, boluntariotza zibikoa, kontsumo arduratsua.

Gizarte-bazterketako boluntarioria

Bazterketa egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden taldeen eskubideak sustatzea eta defenditzea da (haurrak, etorkinak, adinekoak, gazteak, emakumeak, presoak, gutxiengo etnikoak, eta abar), oinarritzko zerbitzuetan elkarlana eginez eta birgizarteratzea sustatuz.

Boluntarioria garapenerako lankidetzan

Hainbat arlotan programak sustatu eta bultzatzea da: hezkuntza, ingurumena, pobreziaaren aurkako borroka, giza eta osasun eskubideak, mundu bakar baterako erantzukidetasunean lagunduz.

Boluntarioria eta desgaitasuna

Prebentzioa, tratamendua eta errehabilitazioa da, bazterkeriak ezabatzen lagunduz eta gizarteratzea bultzatuz.

Ingurumeneko boluntarioria

Ingurumena kaltetzen duten ekintzen kontrako sentsibilizazio, babes eta salaketa kanpainak dira: alternatiba zehatza eta bideragarriak taxutzea.

Babes zibilerako boluntarioria

Larrialdi egoerei erantzutea da, berehalako laguntza lanak babestuz eta gauzatuz.

Gaixotasunak eta osasun- eta gizarte-laguntza

Boluntarioria gaixotasunek jotako pertsonen, gaixo kronikoen, hies, GIB eta abarren erakundeetan; organoak eman eta transplantatzeko erakundeetan; etxez etxeko laguntza; osasuna sustatzea, etab. Mendekotasunak: tabakismoa, drogamenpekotasuna, alkoholismoa, ludopatiak.

Osasunerako boluntarioria

Osasuna sustatzea, bizi-ohitura osasungarriak garatzea, eta osasun premiazko egoerei erantzutea.

Giza eskubideetarako boluntarioria

Jendearen eskubideen aldeko kanpainak lagundu eta sustatzea.

Mendekotasunerako boluntarioria

Familiendako laguntza eta babes programetan parte hartzea, bai eta gizarteratze eta informazio nahiz sentsibilizazio kanpainetan ere.



4. Zer egin dezakezu? Aztertu zure gaitasunak, zure interesak, zenbat denbora duzun.

Noraino konprometitu zaitezke? Zenbat ordu dituzu eskura, parte hartu ahal izateko? Garrantzitsua da horretaz guztiaz pentsatzea, zuretzat zamarik izan ez dadin, edo ikus dezazun egiazki halakorik zure gain har dezakezun.

Zer gaitasun edo trebetasun dituzu? Zer dakizu egiten? Ez kezkatu: denak balio baitu.

Egon ziur zure prestakuntza dela-eta, edo lanean nahiz bizitzan duzun esperientzia dela-eta, edo zure zaletasunak direla-eta, edo zure sormena dela-eta, **gauza erabilgarri asko egin ditzakezula.**

Halaber, zure interesei buruzko gogoeta egin beharko duzu, edo ikusi ea zer gai diren zuretzat eragingarrien, edo zer arlotan arituko zaren gustukoen; zerrenda orientagarri bat utziko dizugu, zuk zerorrek baloratu dezazun zer arlori egokitzen zaion zure profila hobekien:

Nolako jarduerak egiten dituzte boluntarioek?

- Ikerketa, hau da, egoera, lurralde, komunitate edo gizarte sektore jakin bati buruzko datuak eta lekukotasunak biltzea.
- Informazioa eta sentsibilizazioa, zabalkunde lana egitea; egoera, premia eta arazoen berri ematea, beste pertsona batzuen kontzientzia piztu eta eragitea...
- Orientabidea eta aholkularitza, premian dauden pertsoneri eta taldeei entzunez, haien kontsultei erantzunez, haiei laguntza eta informazioa emanaz...
- Prestakuntza, balioetan oinarrituriko hezkuntza, pertsonak eta gizarte taldeak trebetasun sozialetan, osasun ohituretan, lanbide trebetasunetan eta abarretan gaituz.
- Aldarrikapena eta salaketa, eskubideak aldarrikatuz, irregulartasun edo bidegabekeriak berri emanaz...
- Diruak eta baliabideak lortzea, elkartasunezko proiektuak egiteko behar diren bitarteko materialak, dirua, baliabide teknikoak... bilduz eta bideratuz.
- Beharrezko daudenei sostengua eta laguntza ematea.
- Ekintza-proiektuan planifikatu eta kudeatzea, premiak aztertuz, helburuak eta ekintza-estrategiak ezarriz, denetariko baliabideak bilatuz eta antolatuz,...
- Ekintza boluntarioko erakundeak zuzendu, kudeatu eta mantentzea, jendearen parte-hartzea sendotuz, antolaketaren eta ekintzaren eraginkortasuna hobetuz helburuak betetzeko, beste erakunde eta instituzioekiko harremanak garatuz...



5. Nola, non, noiz? Jaso informazioa eta prestakuntza

Ikusten duzun bezala, poliki-poliki gero eta argitasun handiagoa ekarri dugu kontu honetara, eta ziur aski, ia-ia erabakia izango duzu non eta nola aritu lankidetzan.

Orain, informazioa jaso behar duzu, hau da, ongi jakin behar dituzu helburuak, ekintza-programak, antolaketa moldea eta gisakoak. Ikusi egiazki erakunde “serioak” direla; hau da, beren xedeekin konprometitua eta koherenteak, eraginkorrak lan egiteko moduan, parte-hartzaileak eta demokratikoak, gardenak diru-baliabideen kudeaketan...

→ *Egina dago EAEn boluntarioekin lan egiten duten erakundeen zerrenda: [Erakunde zerrenda](#). [2015eko urrian eguneratua](#). Bestalde, [batekin.org](#) webean boluntariotzarekin lan egiten duten Elkarten zerrenda bat aurkituko duzu, eta [elkarteak.info](#) webean, berriz, hiriko boluntariotza-eskariak daude ikusgai. Bestelako boluntariotza bilatu nahi baduzu, hau da, estatukoa, nazioartekoa, etab., bisitatu: [hacesfalta.org](#)*

Elkarlanean hasi aurretik, **Boluntariotza Gutuna edo Boluntariotzaren Barne Estatutua** ere ezagutu beharko duzu. Erakundeak zer boluntariotza-kontzeptu eta boluntariotza-eredu nahi dituen zehazten duen esparrua da, eta halaber boluntarioen parte-hartzea arautzen du. Agiri horrek erakundearen egituraren barruan kokatu du boluntariotza, zehaztu du nor diren boluntario, zer eginkizun betetzen dituzten, zer ardura hartzen dituzten bere gain, zer eskubide eta betebeharrak dituzten erakundearekiko, eta era berean, zer eskubide eta betebeharrak dituen erakundeak boluntarioenganako. Halaber, zehaztu ditu boluntariotzan sartzeko prozesua eta prozedura, eta era berean, elkartean parte hartzeko irizpideak, baldintzak eta bideak, eta erakundeko gainerako kideekiko harreman-esparrua bera ere bai.

Arestian boluntarioen eskubideak eta betebeharrak aipatu ditugu, zer “kontu” bete behar dituzun eta zer gauza “exijitu” behar dituzun jakiteko. Honatx legean ezarritakoak:

Honatx boluntarioaren eskubideak

- Sartzen den erakundearen aktiboki parte hartzea, erakundeari buruz jasotzeko beharrezko informazioa jasoz (batez ere haren xedeei, egiturari eta funtzionamenduari buruzkoa), eta era berean, erakundearen parte-hartze organoak sortzea eta organo horietako kide izatea.
- Esku hartzen dueneko programa edo egitasmoak diseinatu, egin, burutu eta ebaluatzen laguntza ematea; horretaz gain, erakundeko boluntario den aldetik, berari ere badagozkion gaietan iritzia emateko eskubidea izango du boluntarioak.
- Boluntario-lanak eskatzen duen laguntza teknikoa nahiz heziketa- eta giza laguntza jasotzea, eta bere izaera eta ahalmenetara hobekien egokitzen den lanetara bideratzea.
- Aseguratuta egotea, boluntario gisa lan egitean bitartekoren bati kalterik egin baliezaioke ere; asegurua araudian ezarritako baldintzetan eta araudiak ezarritako kapitalaren bidez egingo da.
- Boluntarioak bere lana betetzeko gastaturiko dirua berreskuratzea, baldin eta erakundea eta boluntarioaren artean hitzartutako baldintzetan horrela ezarrita badago, eta, betiere, hitzarmenean jarritako mugen barruan.
- Ekintzak boluntarioaren bizilekutik ahalik eta hurbilen egitea, programek eta egitasmoek horretarako aukera ematen duten neurrian.
- Bazterkeriarik gabe eta zuzentasunez tratatua izatea, boluntarioaren askatasuna, intimitatea eta sinesmenak errespetatuz.
- Lana segurtasun- eta higiene- baldintza egokietan egitea, lanaren ezaugarriek eskatzen dutenaren arabera.
- Gizarteari emandako laguntzak merezi duen errespetua eta errekonozimendua lortzea.

- Aurrez jakinarazita, boluntario izateari askatasunez uztea.
- Lege honetatik eta boluntariotzari buruzko gainerako antolamendu juridikotik etorritako beste guztiak.

→ *Boluntarioei buruzko ekainaren 25eko 17/1998 Legearen 6. artikulua (EHAA, 1998ko uztailaren 13a, 130.), boluntarioaren eskubideak ezartzen dituena.*

Honatz boluntarioak erakundearekiko dituen betebeharrak.

- Sartuta dauden erakundeari laguntza ematea, bere ahalmen eta borondatearen heinean, parte hartuz eta erakundearekin batera lan eginez.
- Erakundearekiko hartutako konpromisoak betetzea, erakundearen araubideak eta helburuak errespetatuta.
- Berari egokitutako lanak arduraz egitea eta erakundeko arduradunek ezarritako jarraibideei segitzea.
- Erakundeak aurreikusitako heziketa-ekintzetan eta lana behar bezala egiteko beharrezko ekimenetan parte hartzea.
- Boluntario gisa lan egitean jasotako edo jakindako informazioa isilpean gordetzea.
- Lagundu nahi dituzten pertsonen eta pertsona-taldeen eskubideak errespetatzea.
- Boluntario-agiria eta erakundearen bereizgarria egoki erabiltzea.
- Boluntarioaren esku uzten diren baliabide materialak zaintzea.
- Oro har, boluntario-lana lege honetako 4. artikuluan ezarritako oinarriak betez egitea.
- Lege honetatik eta boluntariotzari buruzko gainerako antolamendu juridikotik etorritako beste guztiak.
- Onartzen diren segurtasun eta higieneko neurriak betetzea.

→ *Boluntarioei buruzko ekainaren 25eko 17/1998 Legearen 7. artikulua (EHAA, 1998ko uztailaren 13a, 130.), boluntarioaren betebeharrak ezartzen dituena.*



6. HAR EZAZU PARTE ekintza boluntarioko proiektuan eta erakundeetan.

Egiteko unea da, denon artean eraikitzeko unea, beste batzuekin batera elkarrekin arituz hazteko garaia, etorkizun hobearen alde egiten duen zu bezalako jendearekin aritzeko unea, alegia,.

Ekintza boluntarioak ahalegina behar du, eta era berean, parte-hartze aktiboa, konpromisoa, inplikazioa, gogo bizia.... dela ekintza boluntarioko zure ekimen zehatzean, dela huraxe ahalbidetzen duen erakundearen bizitzan. **Konpromisorik gabe, ez dago boluntariotzarik.**

→ Nahi baduzu, esteka horretan buru-belarri ari diren pertsona batzuen esperientziak ezagutuko dituzu.



7. Bestelako informazio interesgarriak

Zer da boluntariotzaren barne estatutua?

Boluntariotzaren barne estatutuak **boluntarioen parte-hartzea arautu du**, eta era berean, parte hartzeko moduak euskarritzen dituzten oinarriak bildu eta parte hartzeko arauak ezarri ditu. Funtsezko tresna da erakundearen jardun onerako, arrazoi hauek direla medio:

- Bultzatu nahi duen boluntariotza kontzeptua eta eredua zehaztu ditu;
- Ezarri du nor diren boluntario, zer eginkizun dituzten, zer ardura hartu dituzten bere gain, eta zer eskubide nahiz betebeharrak dituzten boluntarioek erakundearekiko eta alderantziz;
- Boluntariotza erakundearen egitura kokatu du;
- Boluntarioak erakundearen sartzeko prozesua eta prozedura zehaztu ditu, eta era berean, elkartean parte hartzeko irizpideak, baldintzak eta bideak, eta erakundeko gainerako figurekiko harreman-esparrua ere bai.
- Boluntariotzaren barne estatutua hau da: boluntarioak erakunde barnean identifikatu eta identitatez hornitzen dituen elementua.

→ *Gomendagarria da erakundeek estatutua aurkeztea erakundeetan boluntario aritu nahi dutenei, ideia, egitura, programa eta instalazioekin egiten den bezala.*

Ba al dago jendea onartzeko eta kanporatzeko irizpiderik?

Erakundeko bazkideek elkarrearen estatutuetan ezarriak dituzte jendea onartzeko eta kanporatzeko irizpideak, bai eta boluntarioei dagozkienak ere.

Erakundeek askatasuna dute araudi hori erabakitzeko, baina kontraesanik gabe legeak eskubide eta betebeharez xedatutakoarekin, ezta legean ezarritako gainerako alderdiekin ere. Onarpen irizpideen artean, adibidez: halako profil batzuk behar direla, arduraldia, eta halakoak ezar litezke.

→ *Konpromiso-agirian ezarritako baldintzak ez betetzea, jakina, pertsona kanporatzeko arrazoia izango da.*

Zertarako balio du elkarlan akordioak?

Arestian esan dugun bezalaxe, Boluntarioei buruzko Legearen 8. artikulua 3. puntuarekin bat, elkarlan edo konpromiso akordio bat sinatu beharra dago boluntarioaren eta erakundearen artean.

Akordioak boluntarioen eta erakundeen arteko harremana arautzea du xede, hau da, zer xedapen eta baldintzekin bat ezartzen den harremana, zer jarduera egiteko, eta zer betebeharrak dituen alde bakoitzak. Era berean, noiz arte den baliozkoa eta berrikuspenerako epeak ezarriko ditu. Akordioak hainbat elementu finkatzen ditu, baina bestelakoak ere gehitu daitezke, betiere legean azaldutakoaren kontra ez badoaz.

Nahitaezkoa al da boluntariotzaren aseguru izatea?

Legez, boluntariotza duten erakundeek aseguru-poliza bat harpidetu behar dute, boluntarioei osasun laguntza, heriotza eta ezintasuna estaltzeko, edota ekintza boluntarioan aritzean izaniko istripuak estaltzeko, eta halaber, boluntarioek bere jardueran hirugarrenei eragin diezazkieten kalte-galerak estaltzeko.

Zer diote Legeek?

Hona hemen zer legek eta araudik arautzen dute boluntariotza:

- ✓ [17/1998 Legea, ekainaren 25ekoa, Boluntarioei buruzkoa \(EHAA, 1998ko uztailaren 13a, 130 zk.\)](#)
- ✓ [30/2003 Dekretua, otsailaren 18koa, Boluntariotzaren Euskal Kontseiluaren funtzionamenduari buruzkoa \(EHAA, 2003ko otsailaren 27a, 42 zk.\)](#)
- ✓ [169/2000 Dekretua, irailaren 1ekoa, Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorren funtzionamendu-araudia onartzen duena \(EHAA, 2000ko irailaren 29a, 188 zk.\)](#)
- ✓ [Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren \(EB\) 375/2014 Erregelamendua, 2014ko apirilaren 3koa, Giza Laguntzarako Europako Kidego Boluntarioa onesten duena \("EBko Laguntza Boluntarioen ekimena"\)](#)
- ✓ [Europako Kidego Boluntarioa aplikatzeko arauen erregelamendua](#)
- ✓ [BATZORDEAREN \(EB\) 1398/2014 ERREGELAMENDU DELEGATUA, 2014ko urriaren 24koa, boluntario-hautagaiei eta EBko Laguntza Boluntarioei aplikatu beharreko arauak ezarri dituen \(PDF, 556 KB\)](#)
- ✓ [45/2015 Legea, urriaren 14koa, Boluntariotzari buruzkoa \(BOE, 2015eko urriaren 15a, 247 zk.\)](#)

Iturriak

- BOLUNTA 2008 Boluntariotzaren barne estatutua
- ERDU 2009 Erakundeentzako boluntariotza gida
- BOLUNTARIOTZA. Denon artean ehuntzen den sarea Intermon OXFAM
 - <http://voluntariado.net>
 - <http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.eus>
 - <http://www.plataformavoluntariado.org>
 - [El Estatuto Interno del Voluntariado](#)